

## KLAUSULA-EREDUA



### KAUDIMEN TEKNIKOA

Kontratuaren edukirako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko gaitasun espezifikoak behar direnez, kaudimen teknikoko edo profesionaleko baldintzatzat exijitzen da alor horretan esperientzia zehatza, ezagutzak eta baliabide teknikoak izatea.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko kaudimen teknikoak honako lizitazio hauetan soilik aplikatuko da: lizitazioan enpresa-sailkapenik izatea behar ez bada, kontratuaren xedearen arabera arrazoizkoa bada, eta kontratuaren edukiarekiko proportzionala bada.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako kaudimen teknikoak egiaztatzeko, modu hauetako bat edo batzuk erabil daitezke:

- Enpresak, pertsonak edo entitateak emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren alorrean izandako esperientziaren eta egindako ibilbidearen egiaztagiria; azken hiru urteetan egin diren lan edo eman diren zerbitzuen zerrenda, kontratuaren xedearen antzeko ezaugarriak edo zenbatekoa dituztenak, zenbatekoa, data eta bezeroa adierazita.
- Talde teknikoak emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren alorrean duen gaitasunaren adierazpena, kontratuaren exekuzioan zehatz-mehatz nork jardungo duen adierazita, bai eta haien titulazio, prestakuntza eta esperientzia espezifikoa generoaren alorrean.
- «Erakunde laguntzailea emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunean» adierazten duen ziurtagiria, organismo publiko batek igorria, edo horrelako ezaugarria lortzeko behar diren baldintzak betetzen direla egiaztatzea, zuzenbidean onartutako beste edozein bitartekoren bidez.

Baldintza hori ezartzeko lege-oinarriak hauek dira: 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren, sektore publikoko kontratuen Legearen testu bategina onartzekoaren, 62.-64. eta 76.-79. artikulua; 4/2005 Legearen, otsailaren 18koaren, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoaren, 20.2 artikulua; eta Eusko Jaurlaritzaren Erabakiaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren sektore publikoaren kontratazioan gizarte-irizpideak, ingurumenekoak eta beste politika publikoak barne hartzeari buruzkoaren, IV.4. atala.

